

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

#### **Herritarrek parte hartzeko programa, ekipamendu-sistema orokorrak eta -erabilerak arautzeko Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko aldakuntzari dagokionez**

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotzi ordezkariaren 2020ko maiatzaren 20ko dekretuaren bidez abiarazi ziren izapideak Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egiturazko aldakuntza bat egiteko ekipamendu-sistema orokorrak eta -erabilerak arautzearekin lotuta; dekretuaren hirugarren puntuaren agintzen da herritarrek parte hartzeko programaren laburpena ALHAOn eta udalaren webgunen argitaratu behar dela.

#### **Herritarrek parte hartzeko programa**

Agiriaren xedea:

Hauxe da herritarrek parte hartzeko programa ekipamendu-sistema orokorrak eta -erabilerak arautzeko Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko aldakuntzari dagokionez, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitakoaren ildotik.

Proposatutako aldaketaren laburpena:

Proposatutako aldaketak alderdi hauek aurreikusten ditu:

a) Ekipamendu komunitarioen titulartasun pribatua arautzea, Plan Orokorrak debekatzen badu ere hirigintzako legediak baimendu egiten baitu, eta kirol- edo hezkuntza-ekipamendu askotan gertatzen baita.

b) Unibertsitate-erabileraren hezkuntza-erabilerarekin parekatzea.

c) Ekipamendu kategorien zerrendan ekipamendu anizkuna sartzea, dagoeneko aplikatzen baita, kategoria xehatuaren zerrendan agertu ez arren.

#### **Herritarrek parte hartzeko gida**

Herritarrek parte hartzeko programak urrats hauei jarraituko die:

1. Herritarrek parte hartzeko programa ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratuko da.

2. Dokumentua landu aurretik, kontsulta publikorako deialdia egingo da udalaren webgunean; kontsultak gutxienez hamabost egun natural iraungo du, interesdunek iritzia eman ahal izan dezaten Planaren aldaketaren aurrekariez, ekimenarekin konpondu nahi diren arazoez, onestearen beharraz eta egokitasunaz, helburuez eta izan daitezkeen konponbide alternatiboez.

Deialdian alderdi hauek zehaztuko dira: kontsultarako epea, eta ekarpenak, iradokizunak eta galderak zein helbide elektronikotara bidal daitezkeen, horiek telematikoki baino ezingo baitira egin.

3. Hasierako onespena emateko proposatzen den agiriak aurretiko kontsulta publikoan jasotako ekarpenak balioesteko txostena barne hartuko du. Hasierako onespena eman ondoren, eta jendaurreko erakustaldiaren aurretik:

a. Udalak bere webgunean sartuko ditu agiria eta egikaritze-laburpen bat, errazago aztertzerik izan dadin.

b. Hasierako onespeneri eta jendaurreko erakustaldiaren deialdiari buruzko iragarkia argitaratuko da prentsan, ALHAOn eta udalaren webgunean.

4. Jendaurreko erakustaldian, eta hori amaitu baino 15 egun lehenago gutxienez, betekizun hau bete beharko da —beharrezkoa bada, erakustaldia automatikoki luzatuko da bete ahal izateko—:

a. Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluari erakutsiko zaio agiria.

b. Publikoari irekitako saio batean aurkeztuko da, non alderdi hauek azalduko baitira: aldaketa-erakundearen edukia eta irismena, kontsultatzeko moduak, bilera partikularretarako hitzordua eskatzeko aukera, alegazioak egiteko modua, eta entregatzeko leku-epeak. Orobat, galderak egiteko aukera izango da.

Udalaren iragarki taula ofizialean eta webgunean egingo da saiorako deialdia, eta herritarrek parte hartzeko prozesuan ekarpenak egin dituzten edo aurretik Udalari hori egiteko eskatu dioten guztiei jakinaraziko zaie.

Dosierra zuzenean kontsultatu nahi dutenek horretarako aukera izango dute jendaurreko erakustaldiaren barruan; horretarako hitzordua eskatu beharko diote aurretiaz Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari, telefonoz edo idatziz, eta zehaztu beharko dute arreta edo azalpen pertsonalizaturik jaso nahi duten kontsulta egitearekin batera.

Lan orduetan sailean telefonoz egindako kontsultei edo posta elektronikoz jasotakoei ere erantzungo zaie, edo gerorako hitzordua jarriko.

Alegazioak Sailera bidali beharko dira, idatziz edo telematikoki, jendaurreko erakustaldiaren barruan. Tokiko Gobernu Batzarrak horiei buruzko iritzia emango du dosierra izapidetzen jarraitu aurretik.

Proposatutako aldaketa oso handia ez denez, eta kontzeptualki erraza denez, ez da beharrezkotzat jotzen zabalkunde-materiala prestatzea errazago ezagutarazi eta ulertu dadin.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 28an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**